

Dominique / Txomin PEILLEN KARRIKABURU

Agur jaunak eta andreak! Egun on buruzagiak, Baionako udaletxe honetan hartzen gaituzten hiriko hautetsi eta laguntzaileak, lehenik bistan dena Jean Grenet auzapez jauna eta kultura sailean ordezkoa duen Etchegaray jauna, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, ordezkoak eta kideak, Euskaltzainburua, idazkaria eta beste euskaltzainak, Txomin Peillen Karrikabururen askazi eta adiskideak, eta hemen zaudeten guziak, agur.

J'ai l'honneur de saluer les autorités, la municipalité de Bayonne qui nous reçoit, d'abord monsieur le maire Jean Grenet et son adjoint à la culture monsieur Etchegaray qui le représente, le président de la Société d'Etudes Basques Eusko Ikaskuntza, son adjoint et les membres de cette société savante, le président de l'Académie de la Langue Basque Euskaltzaindia, le secrétaire de l'Académie et les autres académiciens, les parents et amis de Dominique Peillen Karrikaburu, et chacune des personnes présentes.

Txomin Peillen Karrikaburu Parisen sortu zen 1932an. Aita-ama zuberotarrak zituen, Basabürükoak. Berak dio paristarra dela, eta badu horretarik itxuran, janzkeran, umorean, elasturian. Baina zuberotar batzuek ere kraka lerdan horretarik badute, bortu aldekoek bereziki, beharbada anitz ibiltzea baitute. Aita-amek ez zioten euskararik irakatsi: beren artean zubereraz ari ziren, baina bi semeekin frantsesez. Txominek bere aldetik ikasi zuen, bereziki Andima Ibinagabeitia, Parisko bizkaitarrarekin. Gaztetik hegoaldean gandi asko ibili da, gehienbat Gipuzkoan, adiskide minak eginez, hala nola Donostiako Jon Etxaide zena, Urdatx / Santa Graziko bortuan ibiltzea zinez maite zuena.

Txominek gipuzkeraz idatzi du zubereraz bezainbat edo gehiago, Jon Mirande beste paristar euskaldunak lapurteraz idazten zuelarik. Irekidura horrez euskara batuaren arbasoak ditugu, Gabriel Aresti bilbotarrarekin. Hiruak lagunak ziren euskaldungoan eta literaturan, haatik ez politikan: Mirande ideiaz beltza zen, Aresti gorria eta Peillen elektro librea.

Txominek eskua idazlan mota guzietan sartzen du, denetan asko badaki. Gogoia beti alhan ari zaio, erraztasun handia du ororen irensteko eta beretzeko, halaber adierazteko, bai lumaz, bai mingainez eta mihiz. Ikerlari dohaina du, ezin ase; irakasle sena ere bai, eta hori zuen ofizioa, bai Paris aldean, baita Baionako Fakultatean. Idazteko irrika edo tirria du halaber, eta komunikatzaile trebea da, bai euskaraz, bai frantsesez, beharrezan okzitanieraz eta gazteleraz.

Nahiz funtsean zuberotarra den paristarra bezainbeste, horren zabaldura kontuan harturik, baita Baionako hiritartasuna, Euskaltzaindian hartu genuen Larzabal apez lapurtarraren ondoko, Arturo Kanpion nafarrak estrenatu zuen aulkian,

beraz Akademiaren historiako lau lehenetan, ez euskalki baten izenean, bainan euskara batuaren izenean orokorki.

Txominen curriculum aberatsa bestalde aurki dezakezue: beraz ez zaituztet luzamenetan erabili nahi xehetasunetan sartuz, maratoian lehiatzea bailitzateke. Hitz gutiz errango dut bakarrik zein ikerlari zorrotz eta nasaia den batetik, idazle zinez emankor eta polifazetikoa bestetik, denetarik egin baitu, eta ongi egin. Azpimarratuko ditut bereziki horren eleberriak, hainbat literatura sari merezitu diotenak, hainbat nekezia kosta ere argitaratzeko. Olerkian ere liburu andana bat agertu du, bereziki azken urte hauetan, eta saioan are gehiago. Gainera zenbat ikerlan ez ote du publikatu hainbat aldizkaritan? Beraz ez da egun ustekabean hemen gertatzen, Eusko Jakintzak Manuel Lekuona sari famatuaz ohoratua.

Comment définir Dominique Peillen? Mais d'abord pourquoi le définir? Ceci n'est pas un cours d'entomologie, ni même un essai d'anthologie. Nous sommes ici pour le remercier de tout le travail qu'il fait au service de la culture en général, et de la culture basque en particulier. De façon chirurgicale, précisons seulement que Dominique Peillen est un Basque né à Paris en 1932 de parents souletins, qu'il a un pied-à-terre en Haute-Soule à Sainte Engrace, et qu'il est citoyen de Bayonne depuis 1984, soit un quart de siècle bien tassé.

Il est ce qu'on appelle un "euskaldun berri", c'est-à-dire un nouveau bascophone, queleu'un qui a choisi d'apprendre après l'enfance una langue que ses parents ne lui ont pas transmise de peur qu'il n'apprenne pas le français: crainte tout aussi vaine que répandue.

Il a une formation universitaire de biologiste, mais c'est aussi un littéraire, d'où sa double carrière d'enseignant:

- 25 ans d biologie dans les lycées de la région parisienne, avec en parallèle l'enseignement du basque au lycée Lavoisier de Paris
- 15 ans de philologie basque à la faculté de Bayonne après un doctorat de Lettres

Son parcours d'écrivain a commencé tôt, le manuscrit de son premier livre datant de 1953 (21 ans). L'écriture est pour lui bien plus qu'un sage violon d'ingres, une seconde nature habitée de passion et de science, comme on peut le voir à son impressionnant palmarès:

- Environ 200 articles consacrés à la recherche dans diverses revues
- Une centaine d'articles de presse dans plusieurs journaux
- Des productions littéraires brèves dispersées dans des périodiques

- 43 livres publiés: 39 en basque, 3 en français, 1 en castillan (plus de 20 livres de culture basque, occitane et pyrénéenne et 12 autres non publiés, une vingtaine d'oeuvres littéraires en basque: des romans surtout, mais aussi des livres de poèmes).

Que nous faut-il de plus, à part ce qu'il va continuer de produire, encore longtemps je l'espère? Nous voyons bien que Dominique Peillen est à la fois un important créateur en littérature basque et aussi dans les littératures voisines (occitane, française, castillane) et un chercheur infatigable. Il écrit principalement en basque, mais aussi en français et en castillan.

Il réalise ainsi un idéal linguistique qui est proposé à tout habitant des territoires basques, au-delà de tous les clivages politiques ou autres: celui de s'exprimer dans les trois langues principales du Pays Basque, sans oublier le gascon occitan qui est aussi une langue historique du Pays Basque, y compris à Iruñe / Pampelune et à Donostia / Saint Sébastien.

En même temps Dominique Peillen nous aide par là et par ailleurs à franchir les Himalaya de nos préjugés, qui sont les frontières les plus hautes du monde.

Le prestigieux prix Manuel Lekuona ne lui a pas été attribué à la légère par la savante Société des Etudes Basques / Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos. Qu'elle soit félicitée d'un choix aussi judicieux, et que soit remercié monsieur le maire de Bayonne, avec son adjoint à la culture et toute la municipalité, de nous recevoir ci, comme il l'avait fait le premier avril 1989, pour le discours d'entrée de Dominique Peillen à l'Académie de la Langue Basque, Euskaltzaindia.

Mon dernier mot sera pour vous, Marie-Thérèse, dans la langue de Dominique: il vous le traduira, j'en suis, à la perfection. Normandiatik Euskal Herrira etorri zinen. Haatik ez da iduri lukeen bezain bitxia. Historian barna, harreman tinko eta nasaiak izan dira gure bi lurraldeen artean, itsasoz, Baionako portutik: bai arrantzaleen eta merkatarien artekoak, bai zuen dukeen eta gure baskoi endako erregeen artekoak. Eta holaxe, behin batean, Nafarroako arrano beltza Normandiatik etorri zitzaigun, Margarita Perchekoak 1134 urtean ezkontzaz ekarria Monzon Gartzia Ramirez Berrezarlea erregeari. Eta zuk, Thérèse, Txomini beste txoririk ekarri diozu Normandiatik. Haatik ezin hautatuz niagozu zein ote den edo diren: ainara lankide trebea, ala bakearen usoa, Txomin lasaitzen duena? Ala biak agian? Baina Txominek badakike, eta duda barik, erranen dizu nik baino hobeki.

Jean-Louis Davant